



Aste Santu opor garaiko tailerrak (2022-01)

4-11 urte bitarteko haurrentzat antolatutako tailerrak dira. Haurren adinaren arabera aktibitate ezberdinak antolatzen dira: jolasak, dantza, Skate... Tailerrak Aste Santuko opor garaian izango dira eta txanda ezberdinak antolatu dira.

Tramitatzailerak: Eibarko Udaleko Kultura saila, Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: 2016 eta 2017 urteetan jaiotakoak eta LH 1.etik 6.ra bitarteko mailako ikasleak.

Taldeak, datak, ordutegiak, tokia, formatzaileak:

HH (2016an eta 2017an jaiotakoak). "JAZINTO OLABEKO LUDOTEKA" 4 txanda:

- **1 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 16:30-17:50.
- **2 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 18:00-19:20.
- **3 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Orduetgia: 16:30-17:50.
- **4 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Orduetgia: 18:00-19:20.

Gutxienez 6 haur, gehienez 15.

Enpresa: Astixa.

LH 1 eta 2. "URBAN DANCE". Errebal Plazan 2. solairuan. 4 txanda:

- **1 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 16:30-17:45.
- **2 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 17:45-19:00.
- **3 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22 Orduetgia: 16:30-17:45.
- **4 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Orduetgia: 17:45-19:00.

Gutxienez 4 haur, gehienez 14 haur taldeko.

Enpresa: Henrique De Souza.

LH 3 eta 4. "AKROBATIKS". Errebal Plazan 1. Solairuan. 4 txanda

- **1 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 16:30-17:45.
- **2 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 17:45-19:00.
- **3 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22 Orduetgia: 16:30-17:45.
- **4 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Orduetgia: 17:45-19:00.

Gutxienez 4 haur, gehienez 14 taldeko.

Tailerra emango duena: Henrique de Souza.

LH 5 eta 6. "SKATE". Errebal Plazan. 4 txanda:

- **1 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 16:30-18:00.
- **2 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Orduetgia: 18:00-19:30.
- **3 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Orduetgia: 16:30-18:00.
- **4 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Orduetgia: 18:00-19:30.

Gutxienez 4 haur, gehienez 10 taldeko.

Tailerra emango duena: Ipar.

Tailerren prezioak:

- **Apirilak 11, 12 eta 13:**
 - Eibarren erroldatutakoak **6 €**.
 - Eibarren erroldatuta ez daudenak **12€**.



- **Apirilak 19, 20, 21 eta 22**
 - Eibarren erroldatutakoak **8 €**.
 - Eibarren erroldatuta ez daudenak **16€**.

Ikastaroaren ordainketa: matrikularen zenbatekoa ordainketa bakar batean kobratuko zaie, erreziboa helbideratuta.

Tailerren hizkuntza: euskaraz.

Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin behar da **martxoaren 25etik apirilaren 4ra (biak barne)**. Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete behar da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/astesantukotailerrak2022-01>

Kudeaketa arauak:

Aurrematrikula egiteko epea amaitzerakoan behin-behineko zerrendak lortuko dira eta taldeen kudeaketa burutuko da.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2022ko apirilaren 6an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **apirilaren 6an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik tailer bakoitzean izena eman duten pertsona guztiekin zerrendak egiten dira alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), egongo da **apirilaren 6an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Aurre-inskripzioen onarpenaren ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da, ondoren adierazten den dokumentazioa tailerra burutuko den lehen egunean aurkeztuz:

- Aste Santuko tailerretan izena emateko eskaera behar bezala beteta eta tailerrera joango den adingabearen aita, amak edo tutoreak sinatuta.
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.